

Ipuin lehiaketa honek helburu du salatzea euskal herritar guztiek ezin dutela euskara doan ikasi. Hemen eta orain, paperik ez izatea izatearen beraren ukazioa baita, eta ez denak ezinezkoa duelako herritarroi zor zaiguna eskatzea. Paperik gabe, ez baikara, ez baikalde. AEKren xedea euskal herritar guztiak euskalduntzea da, eta administrazioari dagokio hori doan egin ahal izateko bideak jartzea. Herritarrontzat, denontzat, euskararen komunitate zabala osatzen dugunontzat. Inor kanpoan utzi gabe. Harro herri, hitzez eta ekinez.



# “Paperezko bizitzak” ipuin lehiaketa

**Ipuin bat osatu euskaraz paperik gabeko pertsonen egoeraren inguruan.**

Lanak ordenagailuz edo eskuz idatzitakoak izan behar dira eta A4 orrialde bakar batean (word edo pdf formatuetan) aurkeztu beharko dira. Ez dira orrialde bat baino gehiagotan aurkezten diren lanak onartuko. Ipuin guztietan ezinbestekoa da jartzea, idazlearen ezizena. Ipuinean zure ezizena jarri eta AEK-ko edozein euskaltegitara eraman (aparteko kartazal batean ezizena, izen-abizenak eta telefonoa idatzi) edo txapelketak@korrika.eus helbidera bidali (ezizena eta telefonoa ere jarri). Lanak jasotzeko azken eguna martxoaren 25a izango da eta sari banaketa apirilean egingo dugu.

**OHARRAK:**

- Epaimahaiak baloratuko ditu lanak.
- Epaimahaia AEKide talde batek osatuko du.
- Aurkeztutako ipuinak AEKren euskaltegietan edo ekimenetan erakutsi ahal izango dira.
- Saridunen izen abizenak komunikabide desberdinetan argitaratuak izan daitezke (bai paperez bai baliabide elektronikoak erabilita).

